

IRAKASGAIAREN TITULUA/ TÍTULO ASIGNATURA: MUJERES Y CIENCIA:
PASADO, PRESENTE Y FUTURO

Irakaslea/Profesora: Marta Macho Stadler

Ikasgaiaren azalpena/Descripción de la asignatura

Zientziaren historiak alde batera utzi ditu emakumeak, bai azterketarako subjektu gisa, bai aztergai gisa.

Gerda Lerner historialariak honela zioen “Patriarkatuaren sorrera” (1990) lanean: “Emakumeen historia bera alde batera uztea izan da emakumeak menpean mantentzeko modu nagusietako bat”. Hala eta guztiz ere, emakume askok egin dituzte ekarpenak zientziak aurrera egiteko. Gainera, zientziak gutxi erreparatu die emakumeei aztergai gisa. Ikerketan genero ikuspegi horren faltak, kasu askotan alboratutako zientzia eragin du eta horren ondorio kaltegarriak (bereziki emakumeenganakoak) zuzentzen hasi dira.

Irakasgai honetan, iraganari begiratzea proposatzen da, alde batera utzitako zenbait emakume zientzialari ezagutzeko eta zenbait adierazpen zientifiko modu kritikoan berrikusteko; orainaldiari begiratzea, gaur egun (bereziki UPV/EHU) zenbait emakume zientzialarik egiten duten lan garrantzitsuaz ohartarazteko; eta etorkizunari begiratzea, zientzia on bat taldeetan aniztasuna egonik (emakumeen ikuspegia funtsezkoa da) eta genero ikuspegia aplikatuz soilik existitu daitekeela ulertzen ahalegintzeko.

Gaitasunak/Competencias

- Zientziak eta teknologiak aurrera egin dezaten lagundu dutela emakumeek ulertzea, baita hezkuntza formala jaso aurretik ere.
- Zientzia munduan izandako hainbat emakume aitzindari eta egungo emakumezko zientzialari batzuk ezagutzea.

- Anitza ez den kolektibo batek (bereziki, emakumerik gabea) egindako zientzia alboratua dela ulertzea.
- Ikerketa zientifikoa genero ikuspegiarekin egin behar dela ulertzea.

Edukiak/Contenidos

- Estereotipoak zientzian eta teknologian
- Zer aztertzen dute emakumeek? Zer aztertzen dute gizonezkoek? Eta horrek axola al du?
- Erreferentzia falta: non daude emakumeak?
- Zientzian eta teknologian Nobel saria (eta esanguratsuak diren beste batzuk) jaso duten emakumeak
- Nork ematen du ikerketen emaitzen berri? Nork dibulгатzen du zientzia?
- Alborapenak ebaluazioetan eta horren ondorioak ikerketan: Matilda efektutik "Jennifer eta John" efektura
- "Ihesa duen hodia" ikerketaren ibilbidean: ingurune lehiakorak, gaitasunen autopertzepzioa, zereginen banaketa eta abar
- Genero ikuspegiak gabeko zientzia zientzia txarra da eta genero estereotipoak sendotzen ditu
- Hizkuntzaren garrantzia: zer esaten den eta nola esaten den
- Alboratutako diskurtsoak eta narratiba sexistak

Metodologia/Metodología

Saioak aurrez aurrekoak izango dira eta, nagusiki, azalpenezkoak. Edukiak ikasgelako ikus-entzunezko baliabideez lagunduta landuko dira. Gai batzuetan pertsonalki sakontzeko materialak eta gomendatutako bibliografia partekatuko dira eGelako (plataforma lagungarria) ikastaroan.

Ikasgairen batean UPV/EHUko emakume akademikoak gonbidatzeko ahalegina egingo litzateke, jakintza arloetan aniztasun egokia izaten saiatuz, beraiek, modu dibulгатiboan, beren ikerketa gaiak aurkez ditzaten.

Bibliografía/Bibliografia

- COOKE, Lucy. *Hembras*, Anagrama, 2024
- BELTRÁN, Marta. *Mr. Internet. Cómo se relacionan la tecnología y el género y cómo te afecta a ti*, Next Door Publishers, 2021
- PATOU-MATHIS, Marylène. *El hombre prehistórico es también una mujer*, Lumen, 2021
- RUIZ CANTERO, María Teresa. *Perspectiva de género en medicina*, Fundación Dr. Antoni Esteve, 2019
- SAINI, Ángela. *Inferior. Cómo la ciencia ha malinterpretado a las mujeres, y los nuevos estudios que están reescribiendo la historia*, Círculo de tiza, 2018
- GONZÁLEZ RAMOS, Ana M.. *Mujeres en la ciencia contemporánea. La aguja y el camello*, Editorial Icaria, 2018
- GARCÍA DAUDE, S. eta PÉREZ SEDEÑO, Eulalia. *Las 'mentiras' científicas sobre las mujeres*, Editorial Catarata, 2017
- VALLS LLOBET, Carme. *Mujeres invisibles*, DeBolsillo, 2006

Web orriak:

<https://mujeresconciencia.com/>